

Isasa parkea

Urte asko ez dela, Donostiako Udalak Bidebietako Isasa parkea berritzeko asmoa adierazi zuen. Parkean landare aromatiko ugari jartzeko asmoa ere ba omen zuten. Parkea berreraikitzekeo partida 2001. urteko aurrekontuetan sartu zen. Orain arte behintzat ez dute konponketa txikiena ere egin.

Hilabete asko ez dela, Udaletxeak auzotarrek zer nolako parkea nahi luketen jakiteko azterketa burutu zuen. Ikerketa egiteko auzoko elkarte, eskola, merkatari, eta hainbat pertsonekin elkarrizketak egin zituzten eta haietatik ateratako ondorioek auzotarrek parkea nolakoa nahi duten isladatzen zuten, eta Udalak nahi honi jaramon egingo zionaren esperantza gelditu zitzaien guztiei. Aste asko ez dela, egunkarien bitartez Udaletxeko gobernu batzordeak Bidebietako Isasa parkearentzat proiektu bat onartu zuela jakin zen. Proiektuaren zehazpenak ez ziren publiko egin, baina Udalak 500 milioi gastatuko dituela eta auzotarren iritzia %80an kontutan izan omen dela adierazi zuten.

Gaur egun, parkea nolakoa izango den inork ez daki auzoan. Auzotarrek proiektuan parte harrezaten dirua inbertitu zuten eta guztiek ilusioz erantzun zuten, euren hitzek zer bait balio zezaketelakoan. Auzotarren ilusioa egunetik egunera itzaltzen doa, haien iritzi eta proposamenak zertan gelditu diren ez baitakite. Proiektu honetan herritarren parte hartzea propaganda tresna bat ez ezik, simbolikoa ere izan da.

